

FERNANDO GOLVANO, ASINS, OTEIZA ETA PALAZUELORI ESKAINITAKO ERAKUSKETAREN KOMISARIOA, ARTIUM MUSEOAN IZANGO DA DATORREN ASTELEHENEAN, LAGUNARTEAN PROGRAMAREN BARRUAN

Lagunartean ekimenak museoaren programan parte hartzen duten artista eta komisarioekin elkartzeko aukera ematen du Fernando Golvano komisarioak museoaren Bilduma iraunkorraren testuinguruan aurkeztutako *Asins, Oteiza eta Palazuelo*. *Haraindikoari itxura ematea* erakusketan oinarrituko du bere hitzaldia

Saioa irekia izango da publiko guztientzat

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoan, Artium Museoan, Fernando Golvano komisario eta arte kritikaria egongo da *Lagunartean* topaketa-programaren edizio berri batean. Ekimena Museoaren Adiskideei zuzenduta egon ohi den arren, saio berezi bat eskainiko da jende guztiarentzat irekia, datorren astelehenean, maiatzak 26, 18:30ean. Golvanok *Asins, Oteiza eta Palazuelo. Haraindikoari itxura ematea* erakusketa komisariatu du, museoko funtsen *Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000)* erakusketaren barruan egindako ikerketa kasu bat, joan den martxoaren 28an aurkeztu zena. Jarduera doakoa da, baina tokia, mugatia, beraz gomendagarria da erreserba egitea 945 20 90 20 telefonora deituz, museoaren [web orrian](#) edo txartel-leihatilan bertan.

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak, Artium Museoak [Asins](#), [Oteiza](#), [Palazuelo](#). [Haraindikoari itxura ematea](#) [A0 aretoa] erakusketa aurkeztu zuen joan den martxoaren 28an, museoko bildumaren *Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000)* erakusketaren esparruan egindako azterketa-kasu bat. Fernando Golvano arte kritikari eta irakasleak komisariatu duen erakusketa honen ardatza Elena Asinsek (1940-2015), Jorge Oteizak (1908-2003) eta Pablo Palazuelok (1916-2007) egindako lana da. Hirurak aitzindari izan ziren abstrakzio-printzipioa aldarrikatzen, askotariko hautu formaletatik —batzuetan konbergenteetatik—, abiatuta, abstrakzio geometrikoaren eta haren predikatu sinboliko, zehatz, matematiko edo mistikoen inguruan ikertuz.

Erakusketa honen esparruan, eta *Lagunartean* programaren barruan, datorren astelehenean, maiatzak 26, 18:30ean, Fernando Golvanok hiru artista horien ikerketa-prozesuak eta poetika formalak errepatatuko ditu, eta, bere hitzetan, «[hirurei] interesatzen zaizkie intuizio sortzailea,

premisia analitikoekin elkarrizketan, urrezko atala eta gai espazialak, arkitekturarekin eta hirigintzarekin elkarrizketan».

Lagunartean ekimena 2023an jarri zen abian, eta Museoaren Adiskideek Artium Museoaren programetan parte hartzen duten artista eta komisarioen praktiketako sorkuntza- eta pentsamendu-prozesuak ezagutzeko zuten interesagatik sortu zen. Talde honi zuzenduta egon ohi da, baina maiatzaren 26ko saioa publiko guztiei irekia izango da.

Fernando Golvano Filosofian doktorea da Estetikaren eta Arteen Teoriaren arloan (*Teoría estética, telos del arte y ley formal en Oteiza*, 2017, UPV-EHU), arte kritikaria *El Cultural* astekarian, erakusketen komisarioa, saiakeragilea eta irakaslea. Ondoko gaiak ikertzen ditu eta haiei buruzko testuak argitaratzen ditu: Hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako abangoardia artistikoak; Oteiza; arkitektura eta abangoardia modernoak; Theodor W. Adorno eta teoria kritikoa; Cornelius Castoriadis-en filosofia; eta euskal arte garaikidea.

Artium Museoko Erakusketak

Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000). Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren Bilduma

Asins, Oteiza, Palazuelo. Haraindikoari itxura ematea. Azterketa-kasu bat *Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000)* bildumaren erakusketan

Inés Medina. Ikerketa analitiko-plastikoa. 1978-1995. Ekainaren 1era arte

Aurki

Chantal Akerman. Irudiari aurre egitea. Maiatzaren 30etik aurrera

Josu Bilbao. h. Maiatzaren 30etik aurrera